



## DPI - DAC7

### **238 eredua. Plataforma operadoreen bidez saltzaileek egindako jardueren aitorpen informatiboa 238 ereduaren aurkezpena XML mezuetan oinarritutako Web zerbitzu bidez**

Egilea: GFA	Data: 2024/03/14	Bertsioa: 1.1
-------------	------------------	---------------

#### **Berrikuspenak**

Edi.	Ber.	Data	Azalpena	E(*)	Atalak
1	1	2024/03/14	GFAren hasierako bertsioa		

(\*) Ekintza: E = Erantsi; O = Ordezta

## Edukia

<b>1.</b>	<b>HITZAURREA.....</b>	<b>4</b>
<b>2.</b>	<b>BERTSIOEN KONTROLA .....</b>	<b>5</b>
<b>2.1.</b>	<b>1.1 bertsioa .....</b>	<b>5</b>
<b>3.</b>	<b>FUNTZIONAMENDUAREN ESKEMA OROKORRA.....</b>	<b>5</b>
<b>3.1.</b>	<b>Edozein aurkezpenerako. ....</b>	<b>5</b>
<b>1.</b>	<b>Saltzaileen aitorpen kasua (propioak eta/edo beste plataforma operadore batenak):.....</b>	<b>5</b>
<b>2.</b>	<b>Ekitaldi batean salbuetsita dagoen plataforma operadorearen kasuan, beste plataforma operadore batek bere saltzaileak aitortu dituelako: .....</b>	<b>5</b>
<b>3.</b>	<b>Jurisdikzio batean baino gehiagotan aitortzeko baldintzak betetzen dituen eta ekitaldi bateko aitorpena beste jurisdikzio batean egin duela jakinarazten duen plataforma operadorearen kasua: .....</b>	<b>5</b>
<b>4.</b>	<b>Ekitaldi batean kanpo gelditzten den plataforma operadorearen kasua .....</b>	<b>6</b>
<b>3.2.</b>	<b>Dagoeneko bidali den informazioaren inguruko aurkezpenak. Eragiketa motak .....</b>	<b>6</b>
<b>3.3.</b>	<b>GFAren web zerbitzuan aurkezpena egiteko alderdi praktikoak .....</b>	<b>7</b>
<b>3.4.</b>	<b>Datu berriak aurkezteko eta datuak zuzendu eta baliogabetzeko mekanismoak. .....</b>	<b>7</b>
<b>3.4.1.</b>	<b><i>Datu berriei dagokienez (DPI401)</i>.....</b>	<b>7</b>
<b>3.4.2.</b>	<b><i>Zuzenketa/baliogabetzei dagokienez (DPI402)</i>.....</b>	<b>7</b>
<b>Egoera posibleak:</b>		<b>7</b>
<b>3.4.2.1.</b>	<b>ReportableSeller elementu bat baliogabetza.....</b>	<b>7</b>
<b>3.4.2.2.</b>	<b>ReportableSeller elementu bat zuzentza .....</b>	<b>8</b>
<b>3.4.2.5.</b>	<b>Zenbait ReportableSeller eta OtherPlatformOperator elementu.....</b>	<b>8</b>
	<b><i>zuzendu eta/edo baliogabetza .....</i></b>	<b>8</b>
<b>3.4.2.6.</b>	<b>Platform Operator elementu bat zuzendu / baliogabetza .....</b>	<b>8</b>
<b>3.4.3.</b>	<b>Kontuan hartu beharrekoak .....</b>	<b>8</b>
<b>4.</b>	<b>ESTANDARRAK ETA BETEKIZUNAK .....</b>	<b>9</b>
<b>4.1.</b>	<b>Sarrera.....</b>	<b>9</b>
<b>4.2.</b>	<b>Erabilitako estandarrak.....</b>	<b>9</b>
<b>4.3.</b>	<b>Bertsioak .....</b>	<b>10</b>
<b>4.4.</b>	<b>Mezuen egitura .....</b>	<b>10</b>
<b>4.5.</b>	<b>Informazioa prozesatzean gertatutako gorabeheren komunikazioa .....</b>	<b>10</b>
<b>4.6.</b>	<b>Transakzioen integritatea.....</b>	<b>10</b>
<b>5.</b>	<b>MEZUEN ESPEZIFIKAZIO FUNTZIONALA.....</b>	<b>11</b>



<b>5.1.</b>	<b>Aurkezpen mezuaren (Presentation) espezifikazio funtzionala .....</b>	<b>11</b>
<b>5.2.</b>	<b>Erantzun mezuaren (Receipt) espezifikazio funtzionala .....</b>	<b>18</b>
<b>5.3.</b>	<b>Kontuan hartu beharreko alderdi bereziak.....</b>	<b>19</b>
<b>5.4.</b>	<b>Zenbakizko eremuetan onartzen diren balioak.....</b>	<b>21</b>
<b>5.5.</b>	<b>Karaktere berezien erabilerari buruzko argitzea .....</b>	<b>21</b>
<b>6.</b>	<b>238 EREDUA AURKEZTEKO WEB ZERBITZUA .....</b>	<b>22</b>
<b>6.1.</b>	<b>Web zerbitzuaren informazioa.....</b>	<b>22</b>
<b>6.2.</b>	<b>WSDL.....</b>	<b>22</b>
<b>6.3.</b>	<b>MEZUEN ESKEMAK.....</b>	<b>22</b>
<b>7.</b>	<b>ADIBIDEAK .....</b>	<b>23</b>
<b>7.1.</b>	<b>Aurkezpen mezuaren adibidea.....</b>	<b>23</b>
<b>7.2.</b>	<b>Onartutako erantzun mezuaren adibidea (Receipt).....</b>	<b>33</b>
<b>7.3.</b>	<b>Errefusatutako erantzun mezuaren adibidea: elementu batzuek erroreak eragin dituzte eta beste batzuek ez. Azken horiek abisuarekin errefusatu dira (Receipt) .....</b>	<b>34</b>
<b>7.4.</b>	<b>Errefusatutako erantzun mezuaren adibidea: elementu guztiekin erroreak eragin dituzte (Receipt).....</b>	<b>36</b>



## 1. HITZAURREA

113/2024 Foru Aginduak, martxoaren 5ekoak, plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorpen informatiboa izena duen 238 eredu onetsi du.

Laburbilduz, aurkezpen mezuak Europako Batzordearen eta ELGAren XML diseinuan oinarritu dira, baina zenbait etiketa dituen goiburua gehitura, 238 ereduaren aurkezpena kudeatu ahal izateko.

## 2. BERTSIOEN KONTROLA

### 2.1. 1.1 bertsioa

GFAren hasierako bertsioa

## 3. FUNTZIONAMENDUAREN ESKEMA OROKORRA

Behartutako erakundeek 238 ereduaren aitorpena bidali beharko diote GFARI, behar adina mezu informatiko aurkeztuta, ekitaldirako aitortu beharreko informazio guztia bidalita egon arte.

### 3.1. Edozein aurkezpenerako.

Mezu horien egitura honako hau da: goiburua, Erakunde aitortzailearen datuak (Platform Operator) eta Saltzaile erregistro bakoitzaren datuak (ReportableSeller), horren barne dela saltzaile horrek egindako jardueren informazioa (RelevantActivities). **Funtsean, Platform Operator baten aurkezpen mezu bakoitza bakarra den gako batekin (DocRefId) identifikatutako ReportableSeller erregistroen edukiontzia bat da.**

Kontuan hartu behar da kasu hauek gerta daitezkeela:

#### 1. Saltzaileen aitorpen kasua (propioak eta/edo beste plataforma operadore batenak):

- a. **Ekitaldi batean aitortzeko saltzaileak dituen eta bere aitorpena aurkeztu duen plataforma operadorearen kasuan.** Hau da kasu ohikoena. Goiburuko ReportingData elementua “1” balioarekin beteko da. AssumedReporting izeneko flag elementua “False” balioarekin beteko da edo ez da elementu hori jarriko aurkeztuko den XMLan (jartzen ez bada, “False” balioarekin bete dela ulertuko da).
- b. **Ekitaldi batean beste plataforma operadore baten aitorpena bere gain hartu duen plataforma operadorearen kasua.** Goiburuko ReportingData elementua “1” balioarekin beteko da kasu honetan ere. Erakunde aitortzaileak (Platform Operator) aukera izango du ere beste plataforma batzuetako Saltzaileen (ReportableSeller) erregistroetako informazioa bere aitorpenean sartzeko, bere saltzaile propioekin batera. Horretarako, aitorpenean bere gain hartu duen plataforma bakoitzerako AssumedPlatformOperator elementu bat txertatuko du. AssumedReporting izeneko flag elementua “False” balioarekin beteko da edo ez da elementu hori jarriko aurkeztuko den XMLan (jartzen ez bada, “False” balioarekin bete dela ulertuko da).

#### 2. Ekitaldi batean salbuetsita dagoen plataforma operadorearen kasuan, beste plataforma operadore batek bere saltzaileak aitortu dituelako:

Goiburuko ReportingData elementua “2” balioarekin beteko da. Saltzaileen (ReportableSeller) erregistroen informazioa beste plataforma batek egingo badu, Erakunde aitortzaileak (Platform Operator) AssumingPlatformOperator elementua bete beharko du bere Saltzaileen (ReportableSeller) informazioa aurkeztuko duen beste plataforma horren identifikazio datuekin. AssumedReporting izeneko flag elementua “True” balioarekin beteko da.

#### 3. Jurisdikzio batean baino gehiagotan aitortzeko baldintzak betetzen dituen eta ekitaldi bateko aitorpena beste jurisdikzio batean egin duela jakinarazten duen plataforma operadorearen kasua:

Goiburuko ReportingData elementua “3” balioarekin beteko da. Erakunde aitortzaileak (Platform Operator) aitorpena beste jurisdikzio batean egingo duela jakinarazten du, eta AssumingPlatformOperator elementuan adieraziko ditu bere Saltzaileen (ReportableSeller) informazioaren aitorpena egingo duen jurisdikzio horren identifikazio datuak. Kontuan hartu, 2. kasuan ez bezala, orangoan plataforma operadore bera dela, baina aitorpena beste jurisdikzio batean egitea erabaki duela, han ere aitorpena egiteko baldintzak betetzen dituelako, Zuzentarauren arabera.

AssumedReporting izeneko flag elementua “False” balioarekin beteko da edo ez da elementu hori jarriko aurkeztuko den XMLan (jartzen ez bada, “False” balioarekin bete dela ulertuko da).

- 4. Ekitaldi batean kanto gelditzten den plataforma operadorearen kasua,** hau da, ekitaldi horretan jakinazteko saltzailerik ez duena. Goiburuko ReportingData elementua “4” balioarekin beteko da. Aurkezpen hori **Gipuzkoako EGOITZA elektronikoan eskuragarri dagoen idazki baten bitartez egin behar da halabeharrez.** Aurkezpen hori EZ da web zerbitzu bidez egingo.

Saltzaile baten (ReportableSeller) jarduera bakoitzaren informazioa erregistro independente batean adieraziko da, bakarra den docrefid izeneko erreferentzia batekin identifikatuta. Horrela, saltzaile berarentzat ondasunen salmenta eta garraiobideen alokairua aitortu behar badira, docrefid erregistro batean jarriko da ondasunen salmentari dagokiona eta, beste batean, garraiobideen alokairuari dagokiona. Saltzailearen jarduera higiezinen alokairua balitz (ImmutableProperty), bakarra den docrefid erreferentzia batekin identifikatutako erregistro bat prestatuko da higiezinen kokaleku barne duen jurisdikzio bakoitzarentzat, bertan dauden higiezin guztiekin. Esaterako, saltzaileak higiezinen alokairuaren jarduera A eta B jurisdikzioetan gauzatzen badu, bi erregistro egingo ditu, bakoitza bere docrefid erreferentziarekin, hau da, jurisdikzio bakoitzarentzat bana, bertan dauden higiezin guztiak barne hartuta.

**Bakarra den DocRefId gakoarekin identifikatutako** informazio unitate hori erabat onartu edo baztertuko du GFAk, aurkezpenaren momentuan egiten diren baliozkotzeen arabera. DocRefId guztiak onartuta dituzten aurkezpenak bakarrik onartuko dira. DocRefId bat baztertuz gero, aurkezpeneko DocRefId guztiak baztertu egingo dira.

Ondorioz, DocRefId guztiak onartzen badira, erantzun mezuak onartutako erregistro guztien zerrenda adieraziko du (aurkezpeneko guztiak, alegia).

Aldiz, DocRefId erreferentziaren bat baztertzen bada, erantzun mezu informatikoan adieraziko den erregistroen zerrendan denak baztertuta ageriko dira, baina batzuek baliozkotze erroreak izango dituzte eta beste batzuek ez. Baliozkotze erroreak izatekotan, errorean arrazoia azalduko da. Baliozkotze errorerik ez badute, Warning edo ohartarazpen bat ageriko da: “Elementua zuzena da, baina baztertu egin da ezin delako onarpenean partzialik egin”. Baztertze kasuan, Erakunde aitzortaileak, antzemendako erroreak zuzendu eta gero, ondorengo beste aurkezpen batean (edo batzuetan) bidali beharko ditu bere garaian baztertu ziren erregistroak. Bai baliozkotze erroreen ondorioz baztertu zirenak eta baita aurreko paragrafoan adierazitako Warning edo ohartarazpenarekin baztertu zirenak ere.

Aurkezpena onartzekotan, erantzun mezu informatikoak egiaztapen kode seguru bat eramango du, aurkezpenaren data eta orduarekin batera.

Aurkezpenaren emaitza globala ere adieraziko da: onartua (errorerik ez badago) edo baztertua (gutxienez ere errore bat egoteagatik erregistro guztiak baztertzen badira). Ezin da onarpenean partzialik eman.

### 3.2. Dagoeneko bidali den informazioaren inguruko aurkezpenak. Eragiketa motak

Web zerbitzuen bidezko aurkezen sistema honek datu berriak gehitzeko eta aurretiaz aurkeztu den informazio partzialki edo erabat zuzendu edo baliogabetzeko aukera ematen du. Mekanismo horiei esker, aitorpen osagarri eta ordezko aitorpenen kontzeptuei erantzuna eman dokieke.

Aitorpen osagarriei dagokienez, aurkezpenak informazio berria badarama, erregistro berriak DPI401 mezu batekin txertatutako dira; eta aurkezpenak dagoeneko aitortu denarekiko aldaketak badaramatza, aldaketak dituzten erregistroak DPI402 mezu baten bidez txertatuko dira.

Ordezko aitorpenei dagokienez, ondoz ondoko bidalketa bidez egingo dira (alta berri edo zuzenketarik gabe) eta behar adina aurkezen baliatuta, ordura arte indarrean dauden aurretiaz bidalitako erregistro guztiak baliogabetuz, PDI402 mezuen bidez. Hori egin ondoren, informazio berria DPI401 mezu bidez aurkeztuko da.

Horretarako, DocTypeIndic elementua bete beharko da, balio hauekin:

OECD1 erregistro berria (dagoeneko aurkeztu diren gainerakoei  
gehituko zaiena)

## OECD2 zuzenketa OECD3 baliogabetzeak

DocRefId da identifikatzaila bakarra. Ondorengo aurkezpen batean informazio unitate horietako bat zuzendu edo baliogabetu nahi bada, zuzenketa DocRefId bakar berri batekin identifikatuko da, eta CorrDocRefId elementuan adierazi beharko da zuzendu edo baliogabetu nahi den informazio unitatearen identifikatzaila bakarra.

### 3.3. GFaren web zerbitzuan aurkezpena egiteko alderdi praktikoak

Mezuaren goiburuko datuak, aurkezpena kudeatzeko adieraziko direnak, 5.3 puntuaren azaldu dira.

Aurkezpen prozesua 238 ereduaren aurkezpena bidaltzean jarriko da martxan. Aurkezpen hori telematikoki egingo da, zehazki, XML mezuen trukean oinarritutako web zerbitzuen bitartez.

Mezu bidali ondoren, automatikoki egingo da baliozkotze prozesua, bai XML formatuari dagokionez eta baita negozio arauetako dagokienez ere.

Mezuak ez badu XML formatu mailako baliozkotzeren bat gainditzen, SoapFault motako mezu bat itzuliko da, errore zehatza azalduz.

Mezuak XML formatu mailako baliozkotzeak gainditzen baditu, negozio baliozkotzeei ekingo zaie, eta baliozkotzearen emaitza daraman mezu bat bidaliko da.

Aipatu mezu guztiak modu sinkronoan itzuliko dira.

Informazioaren aratzketa egiteko, etiketa bat gaituko da mezuaren goiburuan:

PresentationType. “Simulation” balioarekin jakinarazten bada, jasotako mezuaren eta bidalitako erantzunaren datuak ez dira GFAn erregistratuko; beraz, aitorpena ez da aurkeztuko. Ondorioz, mekanismo hori erabili ahalko da aurkezpen egin aurretik errore posibleak antzemateko. Mekanismo hori erabili nahi bada datuen zuzenketa edo baliogabetze bidalketak probatzeko, aldez aurretik aldatu edo baliogabetu behar den erregistroa existitu beharko da.

### 3.4. Datu berriak aurkezteko eta datuak zuzendu eta baliogabetzeko mekanismoak.

#### 3.4.1. Datu berriei dagokienez (DPI401)

MessageTypeIndic elementuan DPI401 balioa adierazi behar da, eta bidalitako erregistro bakoitzean, OECD1 balioa DocTypeIndic elementuan. Aitorpena osatzeko aurkezpen mezu bat baino gehiago bidali behar badira, horietako bakoitzean DPI401 adieraziko da, eta **Platform Operator** elementuan, OECD0 balioa, **Platform Operator** operadorearen datuak aldatu ez direla jakinarazteko. Kasu horretan, **Platform Operator** elementuak ekitaldi horretarako egindako azken aurkezpenaren DocRefId erreferentzia eramango du.

#### 3.4.2. Zuzenketa/baliogabetzei dagokienez (DPI402)

Egoera posibleak:

##### 3.4.2.1. **ReportableSeller** elementu bat baliogabetzea

MessageTypeIndic elementuan DPI402 balioa adierazi behar da, eta baliogabetu nahi den erregistroaren “DocTypeIndic” etiketaren edukian, OECD3 balioa. Era berean, CorrDocRefId elementuan baliogabetu den ReportableSeller saltzailearen DocRefId erreferentzia adierazi behar da. **Platform Operator** elementuak OECD0 balioa ageriko du, **Platform Operator** operadorearen datuak aldatu ez direla adierazteko. Kasu horretan, **Platform Operator** elementuak ekitaldi horretarako egindako azken aurkezpenaren DocRefId erreferentzia eramango du.

### 3.4.2.2. ReportableSeller elementu bat zuzentzea

MessageTypeIndic elementuan DPI402 balioa adierazi behar da, eta zuzendu nahi den erregistroaren “DocTypeIndic” etiketaren edukian, OECD2 balioa. Era berean, CorrDocRefId elementuan zuzendu den ReportableSeller saltzailearen DocRefId erreferentzia adierazi behar da.

**Platform Operator** elementuak OECD0 balioa ageriko du, **Platform Operator** operadorearen datuak aldatu ez direla adierazteko. Kasu horretan, **Platform Operator** elementuak ekitaldi horretarako egindako azken aurkezpenaren DocRefId erreferentzia eramango du. Platform Operator-aren daturen bat ere zuzendu bada, OECD2 balioa adieraziko da, eta CorrDocRefId elementuan zuzendu nahi den operadorearen DocRefID erreferentzia ageriko da.

### 3.4.2.3. OtherPlatformOperator elementu bat baliogabetza

MessageTypeIndic elementuan DPI402 balioa adierazi behar da, eta baliogabetu nahi den erregistroaren “DocTypeIndic” etiketaren edukian, OECD3 balioa. Era berean, CorrDocRefId elementuan baliogabetu den OtherPlatformOperator-aren DocRefId erreferentzia adierazi behar da. Platform Operator elementuak OECD0 balioa ageriko du, Platform Operator operadorearen datuak aldatu ez direla adierazteko. Kasu horretan, Platform Operator elementuak ekitaldi horretarako egindako azken aurkezpenaren DocRefId erreferentzia eramango du.

### 3.4.2.4. OtherPlatformOperator elementu bat zuzentzea

MessageTypeIndic elementuan DPI402 balioa adierazi behar da, eta zuzendu nahi den erregistroaren “DocTypeIndic” etiketaren edukian, OECD2 balioa. Era berean, CorrDocRefId elementuan zuzendu den OtherPlatformOperator-aren DocRefId erreferentzia adierazi behar da.

Platform Operator elementuak OECD0 balioa ageriko du, Platform Operator operadorearen datuak aldatu ez direla adierazteko. Kasu horretan, Platform Operator elementuak ekitaldi horretarako egindako azken aurkezpenaren DocRefId erreferentzia eramango du

Platform Operator-aren daturen bat ere zuzendu bada, OECD2 balioa adieraziko da, eta CorrDocRefId elementuan zuzendu nahi den operadorearen DocRefID erreferentzia ageriko da.

### 3.4.2.5. Zenbait ReportableSeller eta OtherPlatformOperator elementu zuzendu eta/edo baliogabetza

DPI402 balioa duen MessageTypeIndic mezu batean, zenbait ReportableSeller eta OtherPlatformOperator erregistro zuzendu eta baliogabetu daitezke.

Eregistro horiek “DocTypeIndic” OECD2 eramango dute zuzentzeakoak badira, eta OECD3, baliogabetekoak badira. CorrDocRefId elementuan zuzenduko den erregistroaren DocRefId erreferentzia adieraziko da kasu guztietan.

### 3.4.2.6. Platform Operator elementu bat zuzendu / baliogabetza

PlatformOperator bat zuzentzeko, DocTypeIndic elementuak OECD2 balioa ageriko du.

Hona hemen PlatformOperator bat baliogabetzen eman beharreko urratsak: lehenik, gainerako elementu aktibo guztiak –ReportableSeller zein OtherPlatformOperator motakoak– baliogabetu behar dira,urretiazko aurkezpen baten bidez, eta, ondoren, PlatformOperator operadorea baliogabetu behar da, ReportableSeller edo OtherPlatformOperator elementurik gabe bidali behar den aurkezpen baten bidez. DocTypeIndic elementuak OECD3 balioa eramango du.

## 3.4.3. Kontuan hartu beharrekoak

Hauek dira zuzenketa eta baliogabetzei kontuan hartu beharreko zenbait alderdi:

1. Ezin da elementu bera behin baino gehiagotan zuzendu/baliogabetu aurkezpen berean, hau da, xml fitxategi berean. Hori gertatzekotan, aurkezpena baztertu egingo da (rejected).
2. OECD2 edo OECD3 bat lehenengo aldiz bidaltzen bada elementu baten inguruan, CorrDocRefId-an aldatu

edo baliogabetuko den elementu horren DocRefId-a ageriko da.

3. Bigarren edo ondorengo zuzenketa bat bidaliko balitz, OECD2, zuzenketa berriaren CorrDocRefId-ak aurreko zuzenketan bidalitako DocRefId-a ageriko du. (Kateatutako zuzenketak egin daitezke ondoz ondoko aurkezpenak baliatuta).
4. Ezin da OECD2 edo OECD3 bat bidali aldez aurretik baliogabetu den elementu baten inguruan (OECD3). Hau da, ezin da dagoeneko baliogabetu dena zuzendu edo baliogabetu.
5. Saltzaileen (ReportableSeller) informazioa aitortzeko, DocRefId bat aurkeztu beharko da jarduera mota bakoitzerako (ondasunak, zerbitzuak edo jabetzen alokairua). Horrez gain, jabetzen alokairuaren kasuan, DocRefId bat aurkeztu beharko da saltzaile horrek alokatzen dituen higiezin horiek dauden jurisdikzio bakoitzerako. Hau da, hiru higiezin alokatzen badira, bat A jurisdikzioan eta beste biak B jurisdikzioan, M238 ereduaren bi DocRefId aurkeztu beharko dira, bat A jurisdikzioko higiezinarekin eta beste bat B jurisdikzioko bi higiezinekin.

## 4. ESTANDARRAK ETA BETEKIZUNAK

### 4.1. Sarrera

Mezu baten edukia XML fitxategi bat da. XML dokumentu batek XML eskemetan ezarritako arauak bete behar ditu, formatuak errespetatzeari buruzkoak, derrigortasunari buruzkoak, etab., baina, edonola ere, datuen zehaztasuna jatorrian bermatu behar dute fitxategien prestaketa eta aurkezpenean esku hartzen dutenek.

Eskema bakoitzak Datu Elementuak barne dituzten Datu Multzoetan antolatuta dago. Datu horiek bloke logikoak eratzeko moduan multzokatu dira, eskema bakoitzaren esparruarekiko koherenzia mantenduz.

### 4.2. Erabilitako estandarrak

Web zerbitzuen erabilera da makina-makina interakzioa ahalbidetzen duten zerbitzuak ezartzeko jardunbide egokien oinarria, hau da, zenbait informazio sistemek (herritar/enpresarena eta GF Arena) esku hartzea duen prozesu baten automatizazio integrala.

Web zerbitzuak garatzeko de facto estandarrak erabiliko dira.

Mezuen egitura XML eskemen sorreran oinarritzen da, 2004ko urriaren 28ko W3C gomendioa baliatuta (<http://www.w3.org/TR/xmlschema-0>), <http://www.w3.org/2001/XMLSchema> erreferentziako namespace-a duena.

SOAP protokoloari dagokionez, SOAP V1.1 erabiliko da, 2000ko maiatzaren 8ko W3C OHAR moduan erabilgarri dagoena (<http://www.w3.org/TR/2000/NOTE-SOAP-20000508/>) eta <http://schemas.xmlsoap.org/soap/envelope/> erreferentziako namespace-a duena.

SOAP-1.1 protokoloan, zerbitzuak ezartzeko bi modu daude: “rpc” modua eta “document” modua. Uneko gomendioekin bat etorriz, “document” modua erabiliko da beti (style = “document”), inolako kodeketarik gabe (use = “literal”). Hots, dagokion XML eskemak erabat deskribatuko ditu sarrerako eta irteerako mezuak.

Zerbitzuen deskribapenean WSDL 1.1 erabiliko da, 2001eko martxoaren 14ko W3C OHAR moduan erabilgarri dagoena (<http://www.w3.org/TR/2001/NOTE-wsdl-20010315>) eta <http://schemas.xmlsoap.org/wsdl/> namespace-a duena.

Aginduan adierazitako moduan, aurkezpena zergapekoak berak edo izapide horretarako ahalordedun batek egin ahalko du, eta onartutako ziurtagiri elektronikoa izan beharko du.

Ondorioz, zerbitzuak erabiltzeko, GF Ak onartzen duen ziurtagiri elektronikoa bat izan beharko du instalatuta informazioa bidaltzeko erabiltzen den ordenagailuan. Ziurtagiri hori pertsona fisikoarena edo pertsona juridikoarena izan daiteke. Dokumentu honetan, aurrerago, aurki daiteke horri buruzko informazio gehiago.

## 4.3. Bertsioak

Zerbitzuak bertsio hitzarmen batekin definituko dira, etorkizuneko eguneraketak ezagutzeko modukoak eta, ondorioz, desberdintzeko modukoak izan daitezten. Horretarako, zerbitzuaren izenaren eta lotutako objektu guztien atzean, bertsio zenbaki bat ageriko da.

## 4.4. Mezuen egitura

Presentation: Aurkezpen mezua  
SOAP geruza bat izango du eta BODY-an ageriko dira aurkezpenaren datuak.

Receipt: Erantzun mezua  
SOAP geruza bat izango du eta BODY-an ageriko dira erantzunaren datuak.

## 4.5. Informazioa prozesatzean gertatutako gorabeheren komunikazioa

Aplikazioan gorabeherak izatekotan, egoera horiek SOAP V1.1 protokoloan adierazitako moduan jakinaraziko dira, hots, FAULT elementua erabilita.

Laburbilduz, eskaera bati erantzutean, kasu hauek gerta daitezke:

Emaitza	Ekintza
Aurkezlearen WS bezeroak erantzun bat jaso du espero zen XMLarekin.	Mezua prozesatu da.
Aurkezlearen WS bezeroak erantzun bat jaso du FAULT elementuarekin eta “soapenv:Server” motako faultcode-arekin.	Errore bat gertatu da zerbitzarian. Faultstring elementuaren edukiak adieraziko dio gauzatu behar duen ekintza.
Aurkezlearen WS bezeroak erantzun bat jaso du FAULT informazio okerra elementuarekin eta “soapenv:Client” motako faultcode-arekin.	Mezua ez da behar bezala osatu edo duen elementuren bat du. Egiaztu faultstring elementuaren edukia arazoa konpontzeko mezua berriro bidali aurretik.

## 4.6. Transakzioen integritatea

Web zerbitzuak https garraio protokoloa baliatuz ematen dira. Funtsean, https eskaera bat zerbitzariak prozesatzen duen eta dagokion erantzuna sorrarazten duen eskaera bat da.

Baldintza normaletan, gorago azaldu den protokoloak web zerbitzu baten beharrei erantzungo die, baina gerta liteke ere, zenbait arrazoi direla eta (sarea erortzea, zerbitzaria erortzea...), bezeroak erantzunik ez jasotzea. Kasu horietan, bezeroak EZIN DU jakin zerbitzariak eskaera prozesatu duen ala ez.

Baliteke horrek garrantzirik ez izatea, esaterako, datu jakin bat ezagutzeko egindako kontsulta batean, beranduago eskatuko baita eta horrek ez baitu eraginik izango biltegiratutako datuen integritatean. Aldiz, zerbitzuak datu basea eguneratzen badu, gerta liteke, bi eskaera berdin aplikatu ondoren, emaitzak aurreikusi ez diren ondorioak izatea eta espero zirenak ez diren emaitzak sortzea.

Horregatik, web zerbitzu honek informazioa eguneratzen duenez, bikoitztuta dauden eskaerak kontrolatzeko mekanismo bat dauka.

Ondorioz, aurkezpen bakoitzak bakarra den identifikazio kode bat (**PresentationCode**) izan behar du.

## 5. MEZUEN ESPEZIFIKAZIO FUNTZIONALA.

### 5.1. Aurkezpen mezuaren (Presentation) espezifikazio funtzionala

Azalpena	Datu mota / luzera	Err epi kap ena k	Der rigo rtas una	Edukia
<b>Presentation</b>			D	Aurkezpena
version	A10		D	Eskemaren bertsioa
<b>PresentationHeader</b>			D	Aurkezpenaren <b>goiburua</b> ren datuak
PresentationCode	A20		D	Aurkezpenaren identifikazio kodea
NationalTIN	A9		D	Aitortzailearen IFZ; kontuan izan <b>aitortzailearen IFZ</b> ez dela beti aurkezlearena izaten (laguntzaile sozial edo ahalordedun bat izan daitekeelako)
MessageType	A8		D	Mezu mota: beti txertatuko da “DPI”
Contact	A4000		A	Harremanetarako datuak. Helbide elektroniko eta/edo telefono bat jartzea gomendatzen da, aurkezpenerako gorabeherak gertatzekotan horra jotzeko.
MessageTypeIndic	A6		D	Mezu motaren adierazlea: DPI401 Informazio berria DPI402 Zuzenketak DPI403 Jakinarazteko eragiketarik gabe. Mezu hori kanpo gelditu diren operadoreen aurkezpenerako Egoitzako izapide espezifikasiaren bidez egin daiteke bakarrik.
ReportingPeriod	A10		D	Jakinarazten ari den ekitaldia. Ezohiko kasuren batean 12 hilabete ez balira, Warning etiketan adierazi beharko da.
PresentationType	A10		D	Normal / Simulation
DataQuality	A7		D	Medium / Maximum
ReportingData	Z1		D	Jakinarazitako datu motak. 1etik 4ra arteko balioak
<b>Presentation Body</b>			D	Aurkezpenaren gorputzaren datuak
<b>Platform Operator</b>				Plataforma aitortzailea
ResCountryCode	A2	0..n	A	Bizilekuaren herrialdea.
TIN	A100	1..n	D	Identifikazio fiskaleko zenbakia
issuedBy	A2		A	TIN identifikazio fiskaleko zenbakia eman duen herrialdearen kodea.
unkonw	A1		A	TIN zenbakia existitzen ez denean.
AA	A100	0..n	A	Erakundearen identifikazio zenbakia
issuedBy	A2		A	IN identifikazio zenbakia eman duen herrialdearen kodea.
INType	A50		A	Erakundearen identifikazio mota
VAT	A12		A	BEZaren identifikazio zenbakia
Name	A200	1..n	D	Sozietatearen izena
PlatformBusinessName	A200	0..n	A	Plataformaren izen komertziala
<b>Address (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 3.)</b>		1..n	D	Helbidea
Nexus	A200	1	A	Aitorpenaren arrazoia
AssumedReporting	A1	1	A	Beste plataforma batek plataforma honen saltzaileen eragiketen aitorpena bere gain hartu duenean. True/False



<b>DocSpec (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 2.)</b>		1	D	Reporting Entity erakundearen identifikatzailea
<b>OtherPlatformOperator</b>		<b>1</b>	<b>A</b>	<b>Beste plataforma batzuk</b>
<b>AssumingPlatformOperator</b>		<b>1</b>	<b>D</b>	<b>Plataforma aitortzailearen operadorearen izenean saltzaileen aitorpena bere gain hartzen duen plataforma</b>
ResCountryCode	A2	0..n	A	Bizilekuaren herrialdea.
TIN	A100	1..n	D	Identifikazio fiskaleko zenbakia
issuedBy	A2		A	TIN identifikazio zenbakia eman duen herrialdearen kodea.
unkonw	A1		A	TIN zenbakia existitzen ez denean.
Name	A200	1	D	Sozietatearen izena
<b>Address (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 3.)</b>		1	D	Helbidea
<b>DocSpec (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 2.)</b>		1	D	Reporting Entity erakundearen identifikatzailea
<b>AssumedPlatformOperator</b>		<b>1..n</b>	<b>D</b>	<b>Plataforma aitortzailearen operadoreak aitortzeko bere gain hartu dituen saltzaileei dagozkien plataformak</b>
ResCountryCode	A2	0..n	A	Bizilekuaren herrialdea.
TIN	A100	1..n	D	Identifikazio fiskaleko zenbakia
issuedBy	A2		A	TIN identifikazio zenbakia eman duen herrialdearen kodea.
unkonw	A1		A	TIN zenbakia existitzen ez denean.
Name	A200	1	D	Sozietatearen izena
<b>Address (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 3.)</b>		1	D	Helbidea
<b>DocSpec (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 2.)</b>		1	D	Reporting Entity erakundearen identifikatzailea
<b>ReportableSeller</b>		0..n	A	Jakinarazteko moduko saltzaile bakoitzaren erregistroak
<b>Identity</b>		1	D	Jakinarazitako saltzaileen zerrenda
<b>EntitySeller</b>				Saltzaile pertsona juridikoak
<b>Standard</b>				
<b>EntSellerID</b>		1	D	Saltzailearen identifikazioa
ResCountryCode	A2	0..n	A	Bizilekuaren herrialdea.
TIN	A100	1..n	D	Identifikazio fiskaleko zenbakia
issuedBy	A2		A	TIN identifikazio zenbakia eman duen herrialdearen kodea.
unkonw	A1		A	TIN zenbakia existitzen ez denean.
AA	A100	0..n	A	Erakundearen identifikazio zenbakia
issuedBy	A2		A	IN identifikazio zenbakia eman duen herrialdearen kodea.
INType	A50		A	Erakundearen identifikazio mota
VAT	A12		A	BEZaren identifikazio zenbakia
Name	A200	1..n	D	Sozietatearen izena
<b>Address (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 3.)</b>		1..n	D	Helbidea
<b>FinancialIdentifier (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 4.)</b>		0..n		

PermanentEstablishments			A	Establezimendu iraunkorrik
PermanentEstablishment	A2	1..n	D	Establezimendu iraunkorren Europar Batasuneko herrialdea
<b>GVS</b>				Erabiltzeko baimena jaso bada bakarrik GVS
NameGVS	A200		D	GVS sozietatearen izena
JurisdictionGVS	A2		D	GVS jurisdikzioa
ReferenceGVS	A200		D	GVS erreferentzia
OtherTINGVS	A200		A	Beste GVS TIN zenbaki batzuk
FinancialIdentifier ( <b>ikus bere elementuak beherago taula honetan:</b>		0..n	A	

<b>4.)</b>				
<b>IndividualSeller</b>		1		Saltzaile pertsona fisikoak
<b>Standard</b>				
<b>IndSellerID</b>		1	D	Saltzailearen identifikazioa
ResCountryCode	A2	0..n	A	Bizilekuaren herrialdea.
TIN	A100	1..n	D	Identifikazio fiskaleko zenbakia
issuedBy	A2		A	TIN identifikazio zenbakia eman duen herrialdearen kodea.
unkonw	A1		A	TIN zenbakia existitzen ez denean.
VAT	A12		A	BEZaren identifikazio zenbakia
Name	A200	1..n	D	Sozietatearen izena
Address ( <b>ikus bere elementuak beherago taula honetan: 3.)</b>		1..n	D	Helbidea
BirthInfo		1	D	Jaiotzeari buruzko informazioa
BirthDate	A8	1	D	Jaioteguna
BirthPlace		1	A	Jaolekua
City	A200	1	D	Hiria
City Subentity	A200	1	A	Probintzia
Country info		1	D	
Country Code	A2	1	D	Jurisdikzioaren kodea
Former countryName	A200	1	D	Jurisdikzioaren aurreko izena dagoeneko existitzen ez bada
FinancialIdentifier ( <b>ikus bere elementuak beherago taula honetan: 4.)</b>		0..n		
<b>GVS</b>		1	D	Erabiltzeko baimena jaso bada bakarrik GVS
NameGVS	A200	1	D	GVS sozietatearen izena
JurisdictionGVS	A2	1	D	GVS jurisdikzioa
ReferenceGVS	A200	1	D	GVS erreferentzia
OtherTINGVS	A200	1	A	Beste GVS TIN zenbaki batzuk
FinancialIdentifier ( <b>ikus bere elementuak beherago taula honetan: 4.)</b>			A	
<b>DocSpec (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 2.)</b>			D	Reporting Entity erakundearen identifikatzialea
<b>RelevantActivities</b>			D	Informazio aipagarriei buruzko informazioa
<b>ImmovableProperty</b>			A	<b>Jabetzen alokairua</b>
PropertyListing		1..n	D	Jabetzen zerrenda
Address ( <b>ikus bere elementuak beherago taula honetan: 3.)</b>		1	D	
LandRegistrationNumber	A200	1	A	Jabetza erregistroaren zenbakia
PropertyType	A6	1	A	Jabetza mota



OtherPropertyType	A200	1	A	Azalpena jabetza mota "Other" denean
RentedDays	Z4	1	A	Alokairu egunen kopurua
Consideration				Kontraprestazioa
ConsQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
Number Of Activities				Jarduera kopurua
NumbQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko jarduera kopurua
Fees				Saltzaileen ordainsari atxikiak
FeesQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
Taxes				Zergak
TaxQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
Personal Services			A	Zerbitzu pertsonalak
Consideration				
ConsQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
Number Of Activities				Jarduera kopurua
NumbQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko jarduera kopurua
Fees				Saltzaileen ordainsari atxikiak
FeesQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta



FeesQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
Taxes				Zergak
TaxQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
SaleOfGoods			A	Ondasunen salmenta
Consideration				

ConsQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
Number Of Activities				Jarduera kopurua
NumbQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko jarduera kopurua
Fees				Saltzaileen ordainsari atxikiak
FeesQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
Taxes				Zergak
TaxQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TransportationRental			A	Garraiobideen alokairua
Consideration				
ConsQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
ConsQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta

ConsQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko kontraprestazioak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
<b>Number Of Activities</b>				<b>Jarduera kopurua</b>
NumbQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko jarduera kopurua
NumbQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko jarduera kopurua
<b>Fees</b>				<b>Saltzaileen ordainsari atxikiak</b>
FeesQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
FeesQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko ordainsariak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
<b>Taxes</b>				<b>Zergak</b>

TaxQ1	Z(20,0)	1	D	Lehen hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ2	Z(20,0)	1	D	Bigarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ3	Z(20,0)	1	D	Hirugarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
TaxQ4	Z(20,0)	1	D	Laugarren hiruhilekoko zergak
CurrCode	A3	1	D	Moneta
<b>DocSpec (ikus bere elementuak beherago taula honetan: 2.)</b>				
<b>2. DocSpec</b>				
DocTypeIndic	A5	1	D	OECD1 / OECD2 / OECD3 OECD0 (OECD0 hemen bakarrik erabil daiteke: <b>Platform Operator</b> )
DocRefId	A200	1	D	Identifikatzaile bakarra
CorrDocRefId	A200	1	A	Zuzendu nahi den identifikatzaile bakarra (Derrigorrezko baldin eta DocTypeIndic = OECD2 edo OECD3 bada)
<b>3. Address</b>				
legalAddressType	A7	1	D	Helbide mota: OECD301 / OECD302 / OECD303 / OECD304 / OECD305
CountryCode	A2	1	D	Helbidearen herrialdearen kodea:
AddressFix		1	A	Helbidea formatu egituratuak
Street	A100	1	A	Kalea edo bide publikoaren izena
BuildingIdentifier	A50	1	A	Zenbakia
SuiteIdentifier	A50	1	A	Solairua, ataria edo eskailera
FloorIdentifier	A50	1	A	Solairua edo atea
DistrictName	A100	1	A	Barrutia edo auzoa
POB	A50	1	A	Posta kutxa
PostCode	A50	1	A	Posta kodea
City	A100	1	D	Hiria edo udalerria
CountrySubentity	A100	1	A	Probintzia, eskualdea edo estatua
AddressFree	A255	1	A	Helbidea formatu librean (derrigorrezkoa helbidea ezin bada formatu egituratuak eman)
<b>FinancialIdentifier</b>		0..n	A	<b>Finantza identifikazioa</b>
<b>4. Identifier</b>				Kontuaren identifikatzailea



AccountNumberType	A200	1	D	Kontu mota
AccountHolderName	A200	1	A	Kontuaren titularra
Other Info	A400	1	A	Kontuaren titularraren beste identifikazio datu batzuk

- **Azalpena:** XSD edo atributuaren elementua (etiketa)
- **Datu mota / luzera** Datu mota (A: alfanumerikoa) (Z: zenbakizkoa) eta bere luzera. Luzera adierazlearen aurrean ageri diren aukerako bi puntuak (...) adierazten dute item edo elementu horrek ez duela luzera finkorik eta, aldiiz, tamaina aldakorra izan dezakeela, adierazitako luzeraren mugara arte.
- **Errepikapenak:** elementuaren gutxieneko eta gehieneko errepikapen kopurua. Ez bada ezer adierazten, 1..1 ulertuko da derrigorrezko elementuetarako eta 0..1 aukerako eta mendeko elementuetarako.
- **Derrigortasuna:** elementuaren balioa Derrigorrezkoa (D) edo Aukerakoa (A) den adierazten du, ikuspuntu teknikotik. Derrigorrezko (D) balioak esan nahi du elementua nahitaezkoa dela, bai XSD-aren ondorioz derrigorrezko delako, bai web zerbitzuaren balidazio tekniko batek halabeharrez eskatuko duelako. Kontuan izan ikuspuntu teknikotik ari garela. Etiketen balio guztiak betetzeko ahalegina egin behar da.



- **Edukia:** elementua betetzeko adierazi behar den balioa eta/edo haren azalpena. Kode bakoitzaren esanahiari buruzko informazio gehiago behar izatekotan, konsultatu XSD-ak.

## 5.2. Erantzun mezuaren (Receipt) espezifikazio funtzionala

Azalpena	Datu mota / luzera	E.	D.	Edukia
Receipt			D	Erantzuna
version	A5		D	Eskemaren bertsioa
ReceiptHeader			D	Aurkezpenaren goiburuaren datuak
result	A21		D	Aurkezpenaren emaitza
Presentation			D	
Reference	A26		D	Aurkezpenaren erreferentzia
Timestamp	N26		A	Aurkezpenaren data eta ordua (Derrigorrezko baldin eta PresentationType = Normal bada)
CSV	A16		A	Egiaztapen kode segurua (Derrigorrezko da emaitza “Accepted” edo “Partially Accepted” bada)
Egiaztagiria	A16		A	Egiaztagiria (Derrigorrezko da emaitza “Accepted” edo “Partially Accepted” bada)
PresentationCode	A20		D	Aurkezpenaren identifikazio kodea
NationalTIN	A9		D	Aitortzailearen IFZ
MessageType	A4		D	Mezu mota
MessageTypeIndic	A6		D	Mezu motaren adierazlea
ReportingPeriod	Z4		D	Ekitaldia
PresentationType	A10		D	Normal / Simulation
DataQuality	A7		D	Medium / Maximum
Presenter			D	Aurkezlearen datuak
NationalTIN	A9		D	Aurkezlearen IFZ
Name	A255		D	Aurkezlearen izena
Relationship	A18		D	Aitortzailearekiko harremana
ReceiptBody			D	Erantzunaren gorputzaren datuak
AcceptedDocRefIds	N5		D	Onartutako DocRefId kopurua
RejectedDocRefIds	N5		D	Baztertutako DocRefId kopurua
ValidationDetails		1..n	D	
Error		1..n	A	
ErrorType	A7		D	Errorea / Warning
ErrorCode	N5		D	Errore kodea / Warning
ErrorDetails	A250		D	Errore mezua / Warning
DocRefId	A250	1	A	Identifikatziale bakarra
result	A8		D	Balidazioaren emaitza: docrefid onartua edo baztertua
Error		0..n	A	
ErrorType	A7		D	Errorea / Warning
ErrorCode	N5		D	Errore kodea / Warning
ErrorDetails	A250		D	Errore mezua / Warning

- **Azalpena:** XSD edo atributuaren elementua (etiketa)

- **Datu mota / luzera** Datu mota (A: alfanumerikoa) (Z: zenbakizkoa) eta bere luzera. Luzera adierazlearen aurrean ageri diren aukerako bi puntuek (..) adierazten dute item edo elementu horrek ez duela luzera finkorik eta, aldiz, tamaina aldakorra izan dezakeela, adierazitako luzeraren mugara arte..
- **Errepikapenak:** elementuaren gutxieneko eta gehieneko errepikapen kopurua. Ez bada ezer adierazten, 1..1 ulertuko da derrigorrezko elementuetarako eta 0..1 aukerako eta mendeko elementuetarako.
- **Derrigortasuna:** elementuaren balioa Derrigorrezkoa (D) edo Aukerakoa (A) den adierazten du, ikuspuntu teknikotik. Derrigorrezko (D) balioak esan nahi du elementua nahitaezkoa dela, bai XSD-aren ondorioz derrigorrezko delako, bai web zerbitzuaren balidazio tekniko batek halabeharrez eskatuko duelako. Kontuan izan ikuspuntu teknikotik ari garela. Etiketen balio guztiak betetzeko ahalegina egin behar da.
- **Edukia:** elementua betetzeko adierazi behar den balioa eta/edo haren azalpena.

### 5.3. Kontuan hartu beharreko alderdi bereziak

Eremuen formatuak (etiketak eta atributuak) mezuen eskemetan eta dokumentu honen espezifikazio funtzionalen atalean definituta daude. Halaber, atal horretan aurki daitezke eremu jakinetarako zenbait argibide.

Aurkezen XML fitxategirako onartzen den tamaina handiena 1 mega da oraingoz. Baliteke gehieneko tamaina hori aurrerago berrikustea.

- DocRefId elementuak adierazten du identifikatzaile bakarra. Identifikatzaile horrek jarraian adierazitako formatua izan beharko du, bere bakartasuna bermatzeko:

ES[Ekitaldia][NationalTIN][PL][Identifikatzaile bakarra] -> PlatformOperator bat denean  
 ES[Ekitaldia][NationalTIN][AS][Identifikatzaile bakarra] -> OtherPlatformOperator bat denean  
 ES[Ekitaldia][NationalTIN][RS][Identifikatzaile bakarra] -> ReportableSeller bat denean

Non:

‘ES’ = Spainia.  
 <Jakinarazten ari den ekitaldia>. UUUU formatuan.  
 < NationalTIN > = aitortzailearen IFZ (NationalTIN).  
 <Identifikatzaile bakarra>: bere edukiak identifikatzailearen bakartasuna bermatu beharko du IFZ eta ekitaldi horientzat.

Esaterako, baliozko DocRefId izan liteke:

ES2023A12345678PL00000051

Web zerbitzuak egiaztatuko du identifikatzailea lehenago jaso ez dela, eta DocRefId errepikatu batekin aurkeztu den informazioa baztertu egingo du.

Gehieneko luzera 200 da.

- CorrDocRefId elementuak zuzendu nahi den identifikatzaile bakarra adierazten du.
- DocSpec barruan, eremu hauek bete beharko dira:
  - DocTypeIndic, datuekin egingo den eragiketa mota adierazten duena:
    - OECD1 datu berriak
    - OECD2 zuzenketak
    - OECD3 baliogabetzeak

Salbuespen bat ere bada, OECD0, **Platform Operator**-ak zuzenketarik edo baliogabetzerik ez duela adierazteko, kontuen erregistroen zuzenketak edo baliogabetzeak bidaltzen ari direnean. Aipatu behar da ere, datu berrien aurkezpena osatzeko mezu bat baino gehiago bidali behar izatekotan, bigarren mezuan eta ondorengootan, **Platform Operator** elementuan, OECD0 balioa adierazi beharko dela, **Platform Operator** operadorearen datuak aldatu ez direla adierazteko. Kasu horretan, **Platform Operator** elementuak ekitaldi horretarako egindako azken aurkezpenaren DocRefId erreferentzia eramango du, ez baita ezer ere aldatu.

Jakinarazitako datu motak. ReportingData etiketa:

**1 -Saltzaileen aitorpena (propioak eta/edo beste plataforma operadore batenak):** Ekitaldi batean aitortzeko saltzaileak dituen eta bere aitorpena aurkezten duen plataforma operadorearen kasua da. Kasurik ohikoena da eta barne duka ere “Nire saltzaileen eta beste plataforma operadore baten saltzaileen aitorpen” kasua, hau da, ekitaldi batean beste plataforma operadore baten aitorpena bere gain hartzen duen plataforma operadorearen kasua. Erakunde aitortzaileak (Platform Operator), bere saltzaileen informazioarekin batera, beste plataforma batzuen saltzaileen erregistroen (ReportableSeller) informazioa ere sar dezake bere aurkezpenean. Horretarako, behar adina AssumedPlatformOperator sartuko ditu, bakoitzaren identifikazio datuekin.

**2 -Aitortzeko saltzailerik gabe beste plataforma operadore batek aitorpena nire izanean egin duelako (salbuetsita):** Ekitaldi batean salbuetsita dagoen plataforma operadorearen kasua da. Saltzaileen (ReportableSeller) erregistroen informazioa beste plataforma batek egingo badu, Erakunde aitortzaileak (Platform Operator) AssumingPlatformOperator elementua bete beharko du bere Saltzaileen (ReportableSeller) informazioa aurkeztuko duen beste plataforma horren identifikazio datuekin.

